

ABADIÑO. San Blasak dirala-eta ekitaldi ugari, astebururako

EH Sukarra eta Sen taldeen musika, gaur Txanportan

Andrazkoen II. San Blas Trinkete Txapelketa izango da gaur, Tornosolo trinketean

Aitziber Basauri

Joan dan San Blas egunak itxitako arrastoak oraindino gogoa izanda be, gaur hasi eta domekara bitartean jai giroa nagusituko da Abadiñon. San Blas jaien barruan makina bat ekitaldi antolatu dira egunotarako be.

Emakumezkoen II. San Blas Trinkete Txapelketagaz hasiko dira ekitaldiok, gaur. Gomazko paletan, mailatan banatuta izango da norgehiagoka. Tornosolo trinketean jokatuko dira txapelketaren finalak, 19:00etatik aurrera.

Jokin Iridinek eta Larrait Lazkanok Adrian Ardanzen aurkako norgehiagokan jardungo dabe lehenengo, gaztetxoeren mailan. Ostein, 19:30ean, jubenilen txanda izango da. Garazi Azkarate eta Josune Alberdik, Naiara Gongeta eta Eneritz Zabala eukiko dabez aurkari. Amaitzeko, barriz, nagusien artean, Iratxe Ibarra eta Sheila Perera, eta Ana Agirre eta Itziar Kerexetaren arteko norgehiagoka hasiko da, 20:00etan.

Musikaren ostein, kirola nagusituko da

Gauerako, beste alde batetik, rock kontzertu bikaina antolatu dabe. Txanporta plazan eskainiko dabe kontzertua EH Suka-

rra eta Sen talde ezagunek, 23:00etatik aurrera.

Bihar be kirola nagusituko da. Izan be, 11:00etan Bizkaiko Eskola Arteko Kros Txapelketa korriduko dabe Astola auzoan, bertoko Bidezabal Atletismo Taldeak antolatuta. Era berean, arrastian, Abadiñoko 36. Pelota Txapelketaren finalak jokatuko dira frontoian. Pelota partiduok 16:00etan hasiko dira.

Gau giroa berotzeko ardura, barriz, Luhartz taldeak izango dau. Erromeria izango da eta

plaza talde horren eskutik, 23:00etan.

Domekan, txistularien kalejirak emongo deutse hasikera eguneko ekitaldiei. Eguneko ekitaldiakaz jarraituta, arrastiko 15:00etan, barriz, I. San Blas Futbito Txapelketaren finalak jokatuko dira Zelaietako Herri Eskoletan.

Abadiñoko AEK-k antolatuta eta Korrika kulturalaren barruan, bestalde, 17:00etan hasiko dan, Txan Magoaren saioagaz ederto pasatzerik izango dabe gaztetxoek, Kultur Etxean.

GAZTETXEA

Antzerkia eta kontzertuak

Gaztetxeak be bere aldetik «egitarau alternatiboa» eratu dau. Kontzertuak eta antzerkia antolatu dabe Abadiñoko Gazte Asanbladako ki-deek San Blasarako Gaur eta bihar artean, banatuko dira antolatutako ekitaldiak. Detritus Teatrus antzerki taldeak *Gü-gü txupete* antzezlan taularatuko dabe, gaur 21:00etan gaztetxean bertan. Era berean, gauerako kontzertua antolatu da. Izan be, 22:30ean, Malsonado kantautorearen ekitaldia izango dabe ikusgai gura dabenek.

Biharko, barriz, rock kontzertua antolatudabe. Halan, 22:30ean, Señor No eta Zurkaitz taldeen euren emonaldia eskainiko dabe, Gaztetxean.

Idi probak nagusi, asteburuan

Idi proba saioek be tarte berezia izango dabe egitarauan astebururako. Gaur, esaterako, 22:00etan izango da lehenengo idi dema Abadiñoko katedralean. Izeta, Asador Azken, Mugu-ruza eta Simon jardungo dira bertan lehian. Bihar, barriz, saio bikotxa izango dabe zaleek. 17:00etan eta 22:00etan, hain zuzen be. Bertan, Roberto, Tubilla, Basaguren Jatetxea, Zerrain, Intxilarte eta Ilarreta anaien idi pareak ekingo deutsie lanean. Domekan, beste alde batetik, Zurdo, Burgo eta Iñaki Lopategiren idiek egingo dabe lan 17:00etan.

Astlehenean emongo dabez sariak. Halandabe, aurretik, arrastian eta gauean be jokatu-ko diran azken idi probak ikusteko aukera izango da. Akile, Arientza eta Izeta Anaien idiak izango dira norgehiagokan, arrastian. Gauean, barriz, Arientza Alkartea, Balentina Jatetxea, Telleria eta Rosarioren idi pareak jardungo dira probalekuan.

ZORNOTZA. Bihar 13:00ean izango da

Zentral Termikoaren aurka manifestazinoa izango da Zornotza Bizirik-ek deituta

A.B.

Boroan jarrai gura dan Ziklo konbinatuko Zentral Termikoaren aurka manifestazinoa izango da bihar, 13:00ean. Zornotza Bizirik Plataformak egin dau deia.

Udalak jagokozan instituzioakaz bitartekari lana egin daien eskatu deutso Zornotza Bizirik-ek Udalbatzari azken ohiko bilkuran. Era berean, ESB Internacional enpresak Boroan lurak eskuratu ez daiezan, Aldundian eskarea formala egitea be eskatu deutso. Beste alde batetik, Boroan aurreikusitako egitasmoaren aurka «jarrera tinkoa» mantentzeaz gainera, udal kabinete juridikoak enpresak hartutako pausoak gertutik jarraitzea eskatu jako Udalari. «Herriaren interesak defendatzeko pauso judizialak emoteko, halan bajagoko».

ESB Internacional enpre-

sak daroan «guzurra dala eta, negozioa helburu daukan manipulazino kanpaina» salatu eban gorporaziokideen aurrean Zornotza Bizirik-ek azken batzan. Herrian banatutako progandan «ezkutatu guzurrak» aitatuta: «Ez da gehiengoaren ezetza errespetatzen. Errekak eta airea, larri kutsatuko dira; Durangaldeko ur hornikuntza murrizteaz ganera, zarata jasangaitza eragingo da», besteak beste.

ESB International enpresak, alegazinoak kontuan hartuta, 4.000 milioi pezetako inbertsinoa izango daben zuzenketak egingo dirala adierazo deutso Udalari, Begoña Azarloza, alkateak, azkenengoz esan ebanez. Era berean, Ingurugiro Ministeritzak zuzenketak ikusita ingurugiro agiria emotea posible dala azaldu dabela generatu eban alkateak. Udalak, ostein erabagiko dau zer egin.

ELORRIO. AHTren aurkako ekimena babestuz

Beharrezko baliabideak eukiko ditu batzorde juridiko instituzionalak

A.B.

Euskal Herriko gizarteko hainbat kolektibok bat egin da sortu barri dan AHTren aurkako Koordinakundearen barruan sortutako batzorde juridiko instituzionalari, beharrezko dituan baliabideak emongo deutsoz Udalak. Bertoko EH eta EI udal taldeek hartu eben batzorde hori eratu eta forma emoteko ardura urtarrilean. Horregaz batera, gizarte aurreko aurkezpene eta burutu beharreko mobilizazinoen

antolaketaz arduratuko dan beste bat; eta ekimena aurrea eroateko argudioak eztabaidatu eta erizpide nagusiak zehazten jardungo dauana eratu ziran.

AHTak zuzenean eragindako Udalen arteko koordinakunde bat eratzea da asmoa. «Halandabe oraindino ez jako forma juridikorik emon», argitu dau Niko Moreno alkateak. «EH eta Elk hartu eben ardura eta orain, beharrezko dituan baliabide eta tresnak euren esku jartea da asmoa».

AGENDA

DURANGO

Murala: Arratsalde osoan mural margotzea izango da Gaztetxean, Gazte Asanbladak antolatuta.

Erakusketa: Juan Jose Akizuren 22 margolan eta egurrezko 4 eskultura ikusgai Arte eta Historia Museon.

ERMUA:

Erakusketa: Palestinagaz Alkartasuna astearen barruan, *Handallah: irudia eta askatasuna* marrazki erakusketa izango

da Lurpe eta Infreriu tabernetan hilaren 11ra bitartean. Naji Al-Ali, 1987an israeldarrek hildako irudigilearen lanak dira bertan erakusgai.

Antzerkia: *Feliz Navidad querida hermana* antzezlan taularatuko da gaur, 19:30ean, Ermua Zinemak.

ELORRIO

Musika: Arriolako III. Flamenko Jardunaldien barruan, Tomasito kantaorea, 23:00etan. Sarrera 1.500 pezeta.



EGUNKARIA

Sen taldeak kontzertua eskainiko dabe gaur, Txanporta plazan, EH Sukararekin batera.